

Irakurketa gida gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko estrategiak hezkuntza formal eta ez formalean inguruan 2022



Artikuluak / Ponentziak

AZUMENDI, Eduardo, 2018. **¿Y si les contamos a las niñas qué es el feminismo?** eldiario.es. https://www.eldiario.es/norte/euskadi/contamos-ninas-feminismo_0_809119362.html

Eta neskei feminismoa zer den kontatzen badiegu, txikitatik indarkeria matxistarik gabeko bizitza osoagoa aldarrikatzeko? Eta ipuin desberdin bat kontatzen badiegu?. Hori da Jabekuntza Feministarako Eskolaren oinarria; Gasteizko Udalaren tutoretzapean, haur eta nerabeentzako ikastaroak eta jarduerak antolatuko dituzte urritik aurrera. Jarduera eta tailer horietan, 10 eta 16 urte bitarteko neskei independenteak izaten irakatsiko zaie, diren bezalakoak izaten, zerbait nahi ez dutenean "ezetz" esaten jakiten eta beren idealak defendatzen.

BIGLIA, B. y JIMÉNEZ, E., 2015. **Jóvenes, género y violencias: hagamos nuestra la prevención. Guía de apoyo para la formación de profesionales.** 2015. S.I.: Publicacions URV. <http://www.infocop.es/pdf/GuiaVG2016.pdf>

Urteetan genero-indarkeriei buruz egindako sentsibilizazio- eta ikusgarritasun-lanari esker, gaur egun, identifikazio- eta hurbiltasun-maila handiagoa dago gizartean, nahiz eta, imaginario kolektiboan, bikote-harremanean emakumeen aurka egindako

indarkeriarekin soilik lotzen den, indarkeriaren gainerako formak eta eremuak alde batera utzita. Material honen bidez, begirada zabaldu nahi da, eta genero-indarkerien fenomenoak modu pluralean ulertu; izan ere, indarkeria selektiboa izateaz gain, arauaz kanpoko genero-adierazpenak edo heterosexuak ez diren sexu-lehentasunak dituzten pertsonen aurkako indarkeria ere gertatzen da, hala nola lesbianen, gayen, bisexualen edo transexualen aurkako erasoak. Dokumentu honek aukera ematen du gaitasun profesionalak areagotzeko, detekzio egokia errazteko, prebentzio-jarduerak errazteko eta emakume gazteak aldaketarako ahalduntzeko.

CALDERÓN, D., 2021. **Las violencias sexuales en entornos digitales. Resumen de la Jornada Noctámbul@s**. Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud <https://www.adolescenciayjuventud.org/blog/analisis-y-debate/las-violencias-sexuales-en-entornos-digitales/>

Gaueko aisialdiko eta droga-kontsumoko inguruneetako sexu-indarkeriei buruzko Noctámbul@s behatokiak jardunaldi bat aurkeztu zuen ingurune digitaletako sexu-indarkeriei buruz. Jardunaldia bi mahai-ingurutan banatu zen, emakumeek ingurune teknologiko digitaletan jasandako sexu-indarkeriaren bi dimentsio bereizgarri jorratzeko. Lehenengoa, lineako sexu-indarkerien fenomenoak kontzeptualizatzeari eta testuinguruan jartzeari buruzkoa, gizarte-problematika horretara hurbilketa teoriko sakona garatuz, bertan inplikaturako hainbat ikuspegitatik (legalak, familiakoak, hezkuntzakoak, gazteen eta nerabeen soziazitateari buruzkoak). Bigarrenean, eremu digitaletan indarkeriari aurre egiteko esperientzia, praktika eta plataforma espezifiko batzuk proposatu ziren, baita autodefentsa feministarako espazioen eraikuntza eta fenomeno horri erantzuteko moduak ere. Era berean, jardunalditik ateratako ideia nagusietako batzuk aurkezten dira, batez ere emakumei eta Internet bidez sexu-indarkeria jasaten duten beste kolektibo batzuei arazo horri aurre egiten lagun diezaieketenak, baina gizarte patriarkalaren azpian dauden balio matxisten eta sexumenderatze maskulinoaren beharrezko eraldaketaren testuinguru orokorrean kokatzen direnak.

CONSEJO AUDIOVISUAL DE ANDALUCIA, 2018. **Guía para el tratamiento informativo de la violencia de género**. http://bbpp.observatorioviolencia.org/wp-content/uploads/2018/07/guia_violencia_de_genero.pdf

Legediak komunikabideei eta haien profesionaleri eskatzen die autorregulazio-mekanismoak har ditzatela genero-indarkeriari buruzko informazioak behar bezala zabaltzen direla bermatzeko, kazetaritzaren etikaren printzipioekin bat etorritik. Helburu horrekin, Andaluziako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak (AIK) gida hau prestatu du Berdintasunerako Lantaldearekin lankidetzan. Lantalde hori agintaritzaren arautzailearen barruan sortu zen eta hedabideen eta kazetaritzaren sektoreko ordezkariak biltzen ditu, bai eta erakunde sozial eta sindikalak eta gaian adituak diren pertsonak ere. Dokumentu hau informazio-askatasunerako eskubide konstituzionala babesteko beharretik abiatzen da, eta eskubide hori, genero-indarkeriaren informazio-tratamenduaren kasuan, gure legediak komunikabideei eta kazetariari eskatzen dizkien erantzukizunarekin eta betebeharrekin uztartu behar da. Horretarako, gure herrian dauden kode deontologikoen eta gomendioen azterketa sakona egin dute, baita AIK-k arlo horretan egindako ebazpen eta txostenena ere.

CROSAS REMÓN, I. eta MEDINA BRAVO, P., 2019. **Ciberviolencia en la red. Nuevas formas de retórica disciplinaria en contra del feminismo**. Papers: revista de sociología, 104. lib., 1. zk., 47-73. or. ISSN 0210-2862, 2013-9004. <https://papers.uab.cat/article/view/v104-n1-crosas-medina-bravo/2390-pdf-es>

Emakumearen aurkako ziberindarkeria arazo global gisa azaleratzen ari da. Online jazarritako youtuber feministen kasu gero eta ugariagoek erakusten dute eraso horiek areagotu egiten direla feminista den emakume bati eragiten diotenean. Lan honetan, Youtubeko iruzkinetan agertzen den ziberbiolentzia antifeministaren irismena eta estrategiak aztertu nahi dira. Helburu nagusi horri erantzuteko, kasu-azterketa batetik abiatzen da: Laci Green youtuberrak argitaratutako *Why I'm ... a feminist* (2014) bideoari eginiko iruzkinak. Horien gainean, eduki kualitatiboko azterketa bat egiten da, eta horren interpretazioak Colek defendatutako teoria hartzen du erreferentziazat (2015), Foucaulten diziplina-erretorikaren ereduari oinarrituta (1975). Emaitzen arabera, "iraina", "sarkasmoa", "inposizioa", "kalte egiteko nahia", "sexu-objektibazioa", "kriminalizazioa/difamazioa" eta "mehatxua" (bai orokorra, bai esplizituki sexuala) emakume feminista isilarazteko sistematikoki aplikatutako derrigortze-mekanismoak dira. Aldi berean, feminismoa ez ulertzeak, hau da, feminismoaren bertsio oker eta estereotipatua defendatzeak, etorkizuneko ziberindarkeria-egoerak sustatzeko ahalmen handia duen eredu oso zabaldu bat dagoela adierazten du. Emakumearen aurkako ziberindarkeria eta indarkeria antifeminista pixkanaka normalizatzen ari da, eta horrek erantzuna behar da. Gizartea kontzientziazteko neurriez gain, sarearen erregulazio zorrotzagoa ezinbestekoa izango da mundu birtualean errespetua eta ahalduntzea nagusi izan daitezen, eta ez indarkeria edo diskriminazioa.

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO PARA LA VIOLENCIA DE GÉNERO, 2018. ***Percepción social de la violencia sexual***. 2018. S.l.: s.n.
<http://observatorioviolencia.org/Descargar/informe-sobre-la-percepcion-social-de-la-violencia-sexual-en-espana/>

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak egina, txostenaren helburu nagusiak dira honakoak: populazioak sexu-indarkeriarekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruz duen pertzepzioaren panoramika zehatza eskaintzea; zer jarrerarekin heltzen zaion indarkeria horri (justifikazioa/tolerantzia), eta jarrera horrek onarpen- eta bazterketa-mailekin duen lotura ezagutzea, horiek jakitea funtsezkoa baita indarkeria matxistaren adierazpen hori prebenitzeko eta desagerrarazteko estrategiak lantzeko.

DELGADO ONTIVERO, L.S., 2018. ***La utilidad del feminismo. Empoderamiento y visibilización de la violencia urbana en las mujeres jóvenes***. Habitat y sociedad, 11. zk., 131-148. or. ISSN 2173-125X.
<https://revistascientificas.us.es/index.php/HyS/article/view/5143/6036>

Politika urbanoetan gizarte-berrikuntza txertatzea gutxi jorratu den eremua da, batez ere hirian genero-ikuspegia txertatzea. Feminismoak, diskurtso ahalduntzailea den aldetik, garrantzi handia du hiri-politiketarako, emakumeek jasandako hiri-indarkeriaren dinamikak hautemateko eta baloratzeko duen ahalmenagatik. Ideia hori bultzatzeko, elkarrizketa sakonak egin zaizkie emakume gazteei (18-26 urte), feminismoarekiko konpromiso-mailen arabera banatuta. Elkarrizketatuek pairatu dituzten jazarpen- eta indarkeria-dinamikak identifikatu eta azaltzeko orduan dituzten desberdintasunei esker, aztertu daiteke diskurtso feministaren presentziak/gabeziak nola esku hartzen duen hiri-testuinguruko erasoak bizitzeko moduan. Talde bakoitzean, kontzientzia kritikoko maila jakin bat eta hiri-eragile gisa jarduteko premia uztartzen dira, eta horrek bizirauteko eta arriskua kudeatzeko estrategia desberdinak sorrarazten ditu.

DEL MORAL, C., 2021. **No es amor. Un análisis sobre la violencia de género entre adolescentes.** Save the Children.
<https://www.sjis.net/documentos/ficha/568467.pdf>

Nerabezarora funtsezko aldia da giza garapenean, ezinbestekoa identitatea eta nortasuna eratzeko; garuneko jarduera-aldia lehen haurtzarokoarekin soilik konpara daiteke. Aldi horretan izandako edozein esperientzia traumatikok edo indarkeria-esperientziak ondorioak izan ditzake helduen bizitzako ereduak eta rolak eratzean. Dokumentuak nerabezaroko harremanak eta indarkeria jorratzen ditu; nerabeen arteko genero-indarkeriari buruzko argitasun pixka bat ematen du, zenbakiak ez ezik, horien izaera eta mekanismoak ere ezagutzeko, baita indarkeria desagerrarazteko zer modutan jorratu behar dugun jakiteko ere. Nerabeekin lan egitea funtsezkoa da, desberdintasuna eta indarkeria iraunarazten dituzten rolak normalizatzeari utz diezaioten, eta genero berdintasuna desiragarria eta onuragarria dela aintzakotzat har dezaten.

EUSKO JAURLARITZA - EMAKUNDE, 2019. **Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskek. Esku hartzeko jarraibideak =Niñas y mujeres con discapacidad víctimas de violencia machista. Pautas de intervención.** Junio 2019. S.l.: s.n.
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/Pautas Interv 2019_eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/Pautas_Interv_2019_eus.pdf)

Dokumentu honetan profesionalentzako zenbait jarraibide biltzen dira, indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten neskatuekin eta emakumeekin esku hartzeko erabil ditzaten, pertsona horiek jasotzen duten arreta hobetzea helburu.

FERNÁNDEZ MONTAÑO, P. eta PÉREZ ARENAS, A., 2018. **Menores expuestos a situaciones de violencia de género: la prevención como factor clave.** Trabajo social hoy, 85. zk., 101-110. or. ISSN 1134-0991.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6704768&orden=0&info=link>

Genero-indarkeriak, sexuan oinarritutako desberdintasun-egoera agerian uzten duen sistema patriarkalaren oinarrian dagoen dimentsio anitzeko fenomeno den aldetik, ez die soilik eragiten biktima zuzenei, hots, emakumeei. Hainbat azterlanek adingabeen garapen psikosozialean duen eragina berretsi dute, genero-indarkeria garatzen den testuinguruekiko esposizioari dagokionez. Neskatuek eta mutikoen mota horretako eraso onorioak jasaten dituzte, eraso horien zuzeneko edo zeharkako biktima gisa, eta fenomeno konplexu horri modu integralean heltzeko kontuan hartu beharreko lehenetsutako kolektibo gisa eratzten dira. Hortik ondorioztatzen da, arazoa ikusarazteaz gain, hura prebenitzeko estrategiak artikulatu behar direla. Artikulu honetan, adingabeek genero-indarkeriaren biktima diren subjektu gisa gaur egun duten egoera aztertzen da, eta Espainiako fenomenoaren hurbilketa bat eskaintzen da, bai eta horri dagokionez gizarte-lanaren ikuspegitik planteatu daitezkeen prebentzio-neurrien azterketa bat ere, bai lehen mailan, bai bigarren mailan, bai hirugarren mailan.

FRESNEDO MORENO, I. eta GABILONDO MARKES, J., 2018. **Betaurreko moreak gida**. <https://www.siiis.net/documentos/ficha/535730.pdf>

Betaurreko moreak Gaztematikako haur eta nerabeentzako zerbitzuetako hezitzaile eta teknikariek egindako hezkidetzari buruzko gida da; hiru urte iraun duen prozesu baten emaitza da. Lan hori Arremanitz kooperatibarekin elkarlanean egin da, eta bere helburua Gipuzkoako haur eta nerabeentzako zerbitzuetan berdintasuna ahalik eta modurik egokienean ematen dela bermatzea da, baita hori lortzen laguntzea ere. Ezagutza teorikoa alderdi praktikoekin batera biltzen duten hainbat ataletan banatuta dago gida. Adibidez, hezkidetzari buruzko azalpenak, hezitzaileei zuzendutako irizpideak, ebaluazio-sistemak diseinatzeko jarraibideak edo hainbat jarduera garatzen laguntzen duten eranskinak aurki daitezke bertan.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, 2014. **Terminologia-Indarkeria Matxistaren arloko kontzeptuak**.

<https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&cad=rja&uact=8&ved=2ahUKEwiTxoja35PuAhUMXsAKHU05B6YQFjAAeqQIAxAC&url=https%3A%2F%2Fwww.gipuzkoa.eus%2Fdocuments%2F2556071%2F2587709%2FTerminologi%25CC%2581a-%2BIndarkeria%2Bmatxistaren%2Barloko%2Bkontzeptuak.pdf%2F&usq=AOvVaw0JKFUIHEkwWGn28741xE4>

Arazo jakin batzuk behar bezala ulertzea arreta politika efikaz eta eraginkorrak lantzeko bermerik sendoenetako bat da. Gaur egun, emakumeen aurkako indarkeriak jarrera teoriko eta azalpen ugari sortu ditu ezagutzaren alor guztietan, eta horiek legearen esparruko, esparru psikosozialeko, laguntzaren esparruko eta abarretako neurrien garapena ekarri dute berekin, eta neurri horiek ezarrita indarkeria hori prebenitu, kontuan hartu eta desagertzen lagundu nahi dugu.

HERMOSO SOTO, A.E. eta JIMÉNEZ CORTÉS, R., 2018. **Voces encontradas: mujeres profesionales diversas ante menores y violencia de género**. Investigación y Género. Reflexiones desde la investigación para avanzar en igualdad: VII Congreso Universitario Internacional Investigación y Género: Sevilla, 28 y 29 de Junio de 2018, 2018, ISBN 978-84-948975-3-5, págs. 351-363. S.l.: SIEMUS (Seminario Interdisciplinar de Estudios de las Mujeres de la Univesidad de Sevilla). 351-363 or. ISBN 978-84-948975-3-5.

<https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/80309/Pages%20from%20Actas%20VII%20Congreso%20I%2bG%202018-8.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Genero-indarkeriaren eraginpean dauden amen seme-alaba adingabeak artatzen dituzten profesionalak hainbat rol betetzen dituzte beren diziplina-esparruetatik. Gure helburua da beren esku-hartze eremuetatik genero-indarkeriaren eraginpeko adingabeen inguruan dituzten ikuspegiak ezagutzea, bai eta gaitz horren aurrean duten eginkizuna nola hautematen duten, eta adingabeekiko arretaren hobekuntzei buruz dituzten ikuspegiak jasotzea. Ikerketa hau garrantzitsua da diziplina anitzeko ekarpenei balioa emateko, baita hutsuneak agerian uzteko eta ildoak azaltzeko ere. Horretarako, azterketa kualitatibo fenomenologiko narratibo bat egin genuen, generoan adituak diren eta indarkeriaren eraginpean dauden adingabeekin tratua duten hainbat diziplinatako emakume profesionaleri (erizainak, abokatuak eta gizarte-langileak) egindako elkarrizketekin. Haien ahotsek diziplinazko ikusmoldeen eta rol profesionalen mapa bat marrazten dute genero-indarkeriaren aurrean, bai eta adingabeekin egindako jarduketa zehatzen zerrenda bat ere.

HERNÁNDEZ HERRERA, C.A., 2021. **La percepción de los universitarios sobre el acoso sexual en los espacios públicos**. IE Revista de Investigación Educativa de la REDIECH, no. 12, pp. 3. ISSN 2448-8550, 2007-4336.
<https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/8103314.pdf>

Espazio publikoetako emakumeen aurkako indarkeriak ondorio larriak ditu haien mugikortasunean; aurrekoak bereizi, mugatu eta baztertu egiten ditu, beldurrak eta segurtasunik ezak eragina izan baidezake haien ahalduntzean eta aurrerapen pertsonal, akademiko eta profesionalean. Horregatik guztiagatik, artikulua helburua unibertsitateko emakumeek eta gizonek espazio publikoetako sexu-jazarpena osatzen duten dimentsioen, sexu-indarkeriaren aurka esku hartzeko estrategien eta segurtasunera bideratutako ekintzen inguruan dituzten pertzepzioak aztertzea da. Espazio publikoetan sexu-jazarpenaren adierazpenen dimentsioari dagokionez, emakumeek gizonek baino indarkeria-adierazpen handiagoak jasotzen dituzte; arrisku handienak dituzten unibertsitarioak garraio segurua hartzen nork lagundu ez eta lana dutenak dira; maiz jasotzen dituzten sexu-jazarpeneko jokabideak txistuetatik sexu-erasoetaraino joaten dira. Gizonezkoak, ordea, askatasun handiagoz ibil daitezke. Azkenik, esku hartzeko estrategiak eta segurtasunera bideratutako ekintzak osatzen dituzten faktoreei dagokionez, ezinbestekoa da unibertsitateek gobernuarekin batera lan egitea fenomeno arintzeko esku-hartzeak ezartzeko; horretarako, beharrezkoa da unibertsitateko gazteek parte hartzea.

JIMÉNEZ-DELGADO, M., DE-GRACIA-SORIANO, P., JAREÑO-RUIZ, D. y GONZÁLEZ-CHOUICÑO, M.A., 2019. **Relaciones de género en la sociedad posmoderna: percepciones y actitudes de estudiantes jóvenes sobre las relaciones de poder en las parejas**. Revista de Sociología de la Educación-RASE, 12. lib., 1. zk., 74-91. or. ISSN 2605-1923. DOI 10.7203/RASE.12.1.13256.
<https://ojs.uv.es/index.php/RASE/article/view/13256>

Artikulu honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) institutu publiko batek bertako ikasleen arteko genero-harremanak nolakoak diren jakiteko kezkatik sortutako proiektu baten emaitzak aurkeztu ditu. Azaldutako emaitzak testuinguruan kokatzen laguntzen duen esparru teorikoa boterearen, maitasunaren eta afektuen teorietan eta IKTen eraginean oinarritzen da. Azterketaren helburua da ikastetxeetan bikoteetan botere harremanak nola adierazten diren diagnostikatzea. Horrela, espero da elementuak lortu eta planteatu ahal izatea, ikastetxeek aukera izan dezaten etorkizuneko ekintzarako estrategiak sortzeko, bikoteetako botere-harremanen esparru emozionalatik abiatuta. Horretarako, tresna kuantitatibo bat diseinatu da, harreman horiek nolakoak diren ebaluatzen laguntzen duena. Galdetegia DBHko hirugarren eta laugarren mailako 140 ikasleri aplikatu zaie, 14 eta 18 urte bitartekoak. Ondoren, azterketa konparatibo bat egin da unibertsitateko graduako lehen eta bigarren mailako 192 ikasleren beste lagin batekin, batez ere 18 eta 20 urte bitartekoak, adin-tartea handitzeko eta esperientzia hobeto baloratzeko. Lortutako datuen analisiak agerian uzten du alde estatistikoki esanguratsuak daudela adinaren, sexuaren eta bikote-esperientziaren arabera, bai eta komunikazioak harreman afektibo-sexualen eguneroko prozesuan duen garrantzia ere. Datuak aztertu eta interpretatu ondoren, ondorioztatu da bikoteen botere-harremanak mozorrotuta daudela, bikoteen kontzepzio erromantikoa dela eta.

LINARES BAHILLO, E., ROYO PRIETO, R. y SILVESTRE CABRERA, M., 2019. ***El ciberacoso sexual y/o sexista contra las adolescentes: Nuevas versiones online de la opresión patriarcal de las sexualidades y corporalidades femeninas.*** *Doxa Comunicación: revista interdisciplinar de estudios de comunicación y ciencias sociales*, no. 28, pp. 201-222. ISSN 1696-019X. https://repositorioinstitucional.ceu.es/bitstream/10637/10450/1/Ciberacoso_ELinares_RRoyo&MSilvestre_Doxa_es.pdf

Artikulu hau "el Iceberg Digital Machista" doktore-tesian lortutako datuetatik abiatzen da, eta metodologia kualitatibo bat erabiltzen du genero-irakurketa eta (ciber) feministatik barneratzeko Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) neskek jasaten duten ziberjazarpen sexualean eta/edo sexistan. Errealitate horri heltzeko, 9 eztabaida-talde egin dira EAeko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleekin (3 neskenak, 3 mutilenak eta 3 mistoenak), bai eta 2 foro telematiko ere. Engranaje metodologiko kualitatibo horri esker, neskek jasaten dituzten jazarpen-moduak aztertu ahal izan dira, eta ziberindarkeria mota horien azpian dauden egitura patriarkal/matxista eta sexistetan sakondu ahal izan da. Eraitza garrantzitsuenen artean aipatzekoa da, offline errealitatean gertatzen den bezala, sare sozialetan genero-eskemak eta harreman asimetrikoak erreproduzitzen direla, eta, beraz, indarkeria matxistak. Zehazki, sare sozialetan, nesken aurkako ziberindarkeria-modu espezifikoak ematen dira, eta horiek gehiago iraintzen dira haien fisikoagatik, sexualki beldurtzen dira, eta mutilek baino komentario sexista gehiago jasotzen dituzte.

LUXÁN SERRANO, M., BIGLIA, B. eta AZPIAZU CARBALLO. ***Violencias Sexuales una asignatura pendiente. Guía para afrontar las violencias sexuales en las universidades.*** 2018. S.l.: UPV. <http://usvreact.eu/wp-content/uploads/2018/02/Violencias-Sexuales-una-asignatura-pendiente-Guia-para-afrontar-las-violencias-sexuales-en-las-universidades-ONLINE.pdf>

Genero-indarkeriak gizarte osoa hartzen duten gizarte-arazoa dira. Eredu horretan egindako ikerketaren arabera, indarkeria horiek adin, kultura, gizarte-klase eta hezkuntza-maila guztietako emakumeei eta beste subjektu ez-arautzaile batzuei eragiten diete; era berean, indarkeria hori gertatzen den testuinguruak anitzak eta askotarikoak dira, eta unibertsitate-esparrua horietako bat da. Izan ere, unibertsitateko eragileen artean egindako ikerketa ugari, bereziki eremu anglosaxoian, sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren adierazle oso kezagarriak islatzen dituzte. Hala ere, Espainian zein Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan, egoera horietan dauden ikasleei laguntzeko zerbitzuak ez dira oso ezagunak eta oso mugatuak dira. Prozedura instituzional argirik eta laguntza egokirik ez izateak bigarren mailako biktimizazioak eragin ohi ditu indarkeria horiek eragindakoen artean. *Unibertsitateko testuinguruan sexu-indarkerien biktimei laguntzeko proiektua: prestakuntza-eredu egonkorak sortuz (USVreact)* bi urteko ikerketa-ekintza da, Europako Batzordearen Daphne III programaren kofinantzaketari esker inplementatua. Helburu nagusia izan da unibertsitatearen eremuan sexu-indarkerien prebentzioan eta tratamenduan eragin positiboa duten prestakuntzak diseinatzea, gidatzea eta ebaluatzea.

MARTÍNEZ GÓMEZ, J.A., BOLÍVAR SUÁREZ, Y., REY ANACONA, C.A.R., RAMÍREZ ORTIZ, L.C., LIZARAZO OJEDA, A.M. y YANEZ PEÑÚÑURI, L.Y., 2021. ***Esquemas Tradicionales de Roles Sexuales de Género, Poder en las Relaciones y Violencia en el Noviazgo.*** *Revista iberoamericana de psicología y salud*, vol. 12, no. 1, pp. 1-16. ISSN 2171-2069. <http://www.rips.cop.es/pdf/art412021.pdf>

Azterlan honen helburua sexu-estandar bikoitzaren, sexu-harremanetako boterearen, genero-rolekiko jarreraren eta ezkongai-harremanetako indarkeriaren arteko erlazioa ebaluatzea izan zen. Emaitzek erakutsi zuten parte-hartzaileek bi norabideko indarkeria erabiltzen dutela ezkongaietan. Era berean, jarrera sexistak, sexu-estandar bikoitza eta harremanetako boterea zuzenean eta modu esanguratsuan korrelatu ziren jasotako eta erabilitako indarkeria-mota batzuekin. Emaitzek genero-jarrera eta -jokabide tradizionalisten eta ezkongai-aldiko indarkeriaren arteko erlazioak aztertzearen garrantzia azpimarratzen dute, etorkizunean ezkongaietan tratatu txarrak prebenitzeko programak diseinatzeke ikerketetan sartzeko.

VIZCARRA, M.T. ...[et al.]. **Hezkidetza egoerari buruzko diagnosi azterlana Gasteizko ikastetxeetan (0-18 urte)**. Vitoria-Gasteizko Udala. Udal gaiak bilduma. <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/80/51/58051.pdf>

ZULUAGA GOMEZ, A., 2018. **Representaciones sociales construidas sobre el cuerpo femenino por mujeres adolescentes, víctimas de explotación sexual**. Facultad Nacional de Salud Pública: El escenario para la salud pública desde la ciencia. 36. lib., 1. zk., 75-82. or. ISSN 0120-386X. <http://www.scielo.org.co/pdf/rfnsp/v36n1/0120-386X-rfnsp-36-01-00075.pdf>

Artikulu honen helburua da biktima izan diren emakume nerabeek emakumeen gorputzaren gainean eraiki dituzten irudikapen sozialak eta esanahi kognitibo eta afektiboak aztertzea eta berrikustea. Gogoeta beren azalaren azpian dagoen "horretan" murgilduko da; ustatzen edo bitartekari gisa jarduten duenarentzat desiraren objektu gisa eraturako gorputz horren azpian, hura; biktimen gorputzen gainean egiten den eskubideen urraketa horretan parte hartzen duten eragileek dituzten irudikapen sozialak ikertu ziren, bai eta flagelo horrekiko gizarte- eta estatu-kontribuzioari buruzko kritika zorrotza ere. Ildo horretan, arazo horri buruzko kontzeptualizazio aditu eta instituzional batzuk auzitan ipintzen dituzten gaiak planteatzen dira, hala nola kategoria komertziala, horren bitartez azaltzen baita esplotatzailearen eta nerabe baten artean ezarritako harreman mota. Testu hau sexu-esplotazioaren biktimekin bi urte baino gehiagoz izandako interakzioaren emaitza da, landa-egunkari batean arazo hori hainbat testuingurutan behatu eta erregistratu, eta horrek aukera ematen du hemen jasotako ikuspuntuak planteatzeko. Biktima izan ziren emakume nerabeekin egindako esperientzia-tailer batean, gorputz kosifikatu dei genezakeena ulertzea garrantzitsua eraikuntzak lortu ziren: gorputz horren gizarte-irudikapena, funtsean, beste baten gozamenarako "gauza bat" dela da, haren eskubideekiko edo eragindako kaltearekiko inolako interesik gabekoa. Sexu-esplotazioaren biktimek jasaten duten indarkeria-mota sistematikoki deskargatu da haien gorputzen gainean, eta horrek justifikatzen du eztabaida horren egokitasuna.

Liburuak

- ACALE SÁNCHEZ, M. **Análisis de la realidad del acoso sexual y sexista en la universidad y propuestas de mejora. Un estudio de caso**. Tirant Humanidades, 2021. ISBN 978-84-18534-81-2.
- AZPIAZU CARBALLO, J. **Masculinidades y feminismos**. Virus, 2017. ISBN 978-84-92559-78-7.
- BARJOLA, N. **Microfísica sexista del poder**. El caso Alcásser y la construcción del terror sexual. Virus, 2018. ISBN 978-84-92559-83-1.

- FUNDACION CERMI MUJERES. [Protocolo para la atención a mujeres con discapacidad víctimas de violencia](#). Fundación Cermi Mujeres, 2021. 978-84-18433-21-4.
- GUERRERO MOLINA, M. **Prevenir la violencia de género desde la escuela. Programa para educar en la igualdad**. CCS, 2021. ISBN 978-84-1379-016-9.
- MIGUEL ÁLVAREZ, A. **Ética para Celia. Contra la doble verdad**. Ediciones B, 2021. ISBN 978-84-666-6553-7.
- REVELLES-BENAVENTE, B. y GONZÁLEZ RAMOS, A.M. **Género en la educación. Pedagogía y responsabilidad feministas en tiempos de crisis política**. Morata, 2019. ISBN 978-84-7112-933-8.
- RODRÍGUEZ MARTÍN, V., 2018. **La educación social ante la vulnerabilidad y el riesgo social en Iberoamérica: Infancia y género en los contextos educativos, 2018, págs. 153-162**. S.l.: Subdirección General de Documentación y Publicaciones, pp. 153-162.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6519377>.
- VELTE MORAN, S. **Nik sinesten dizut**. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua. Elkar, 2019. ISBN 978-84-9027-936-6.
- WOLF, N. **El mito de la belleza**. Contenta me tienes, 2020. ISBN 978-84-120876-8-0.

Bidegrabazioak

- EL PAÍS, 2018. **Cambia el trato**. Verne.
https://verne.elpais.com/verne/2018/11/15/articulo/1542267324_468842.html
- EL PAÍS, 2018. **"Soy tu machismo", la cámara oculta que muestra que todos tenemos actitudes machistas**. Verne.
https://verne.elpais.com/verne/2018/11/22/articulo/1542875814_287590.html

Mugikorrerako aplikazioak

All Free. Aplicación móvil All Free – Observatorio de la violencia de género.
<http://bbpp.observatorioviolencia.org/proyecto/aplicacion-movil-all-free/>

Webguneak

<https://www.beldurbarik.eus/eu/>

<https://abarquin.wordpress.com/>

Beste batzuk

Indarkeria matxistari buruzko **aurreko urteetako irakurketa gidak** Gazteen Behatokiko web-orrian aurki daitezke.

2021

https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_ira_kurri/adjuntos/irakurketa_gida_indarkeria_sexista_21_e.pdf

2020

https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_ira_kurri/adjuntos/irakurketa_gida_indarkeria_sexista_2020_otsaila_e.pdf

2019

http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_irak_urri/adjuntos/Irakurketa_gida_indarkeria_matxista_19.pdf

2018

http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_irak_urri/adjuntos/gida_beldur_barik_e.pdf

2017

http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_irak_urri/adjuntos/irakurketa_gida_beldur_barik_17.pdf

2014

http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/irakurketa_gidak/eu_irak_urri/adjuntos/irakurketa_gida_genero_indarkeria_14.pdf